

✿ Hitz eta Pitz ✿

Bi liburudendekin solasean

Bi hiri –Iruñea eta Algorta–, bi liburu-denda –Auzolan eta La Gusana–, bat tradizio handikoa, bestea duela gutxi sortu berria, bakoitzak bere ikuspuntutik luzatuko dizkigu gure galderai erantzunak.

JON SUAREZEK ITZULITA
(*La Gusanako en erantzunak*)



Denda ireki zenetik gaur egunera aldaketa handia sumatu duzue Haur eta Gazte Literaturaren salmentan? Non atzeman dituzue aldaketarik handienak?

✿ **LA GUSANA:** Egia esan, asko harritu gaitu ireki genuenetik La Gusanak izan duen harrerak. Album ilustratuak leku pribilegiatua du apaletan eta bagenekien hasieran zaila izango zela, baina poliki-poliki gorantz egin dute hala interesak nola salmentek. Hasieran dezente aholkatzen genuen, baina nabaria izan da aldaketa, pixka bat gehiago dakiela eta zorrotzago itzultzen baita bezeroa. Oso gustuko dugu hori. Guretzat handiagoa da erronka; orain bezeroek ere ohartarazten digute beste irakurketa batzuek.

✿ **AUZOLAN:** Salmentan gutxi gorabehera berdin. Aldaketa handiena erosteko aukera handiagoa dela nabarmenduko nuke. Bestalde, fantasiako eleberri gehiago daudela, eta gauza bera gertatzen da itzulpenak direla eta.



Nola ikusten duzue gaur egun Haur eta Gazte Literaturaren merkatua? Bizkorrean? Ahul samar? Zein dira merkatuan atzematen dituzuen punturik ahulenak? Eta sendoenak?

🌿 **LA GUSANA:** Haur eta Gazte Literaturan konfidantza handia dugu. Egia da oraindik gaur egungo merkatu editorial indartsuaren barruan irla txiki bat dela. Hala ere, idazle eta ilustratzaile zoragarriak daude egundoko kalitatea eta freskotasuna ekartzen ari direnak. Gainera, haur liburu-dendaren bat ireki da Espainian eta honek pentsarazten digu, oso poliki bada ere, HGL hasi dela garrantzizko leku bat betetzen. Uste dugu parametro komertzialetatik kanpoko HGLri buruzko ezjakintasun handia dela punturik ahulena. Irakurketaren sustapenean eta liburuaren dinamizazioan oinarritzen diren egitasmo txikiei eskaintzen zaien interes eskasa. Eta sendoenak, berriz, egitasmo editorial batzuen kalitateari dagozkio, poliki-poliki publiko uzkurrenaren interesa pizten ari direnak.

🌿 **AUZOLAN:** Nire ustez, bizkorrean, baina oraindik erdarazko liburuen «aurka» ez dago zer eginik. Erdaraz aukera askoz ere gehiago dago euskaraz baino, oraindik asko falta da maila berean jartzeko. Gainera argitaletxe askok euskarazko liburuak argitaratzeari utzi egin diote, ez baitute nahi beste irabazten.

Esaten dutenez, azken urte hauetan liburuaren iraupena jogurt batena adinakoa da. Zuek ere horrelako epeak ibiltzen dituzue? Zein izaten da liburu baten batez besteko denbora dendan? Baduzue epe jakin bat saltzen ez diren liburuak bueltatzeko?

🌿 **LA GUSANA:** Agian gurea ezohikoa izango da kontu honetan. Batetik, maitemintzen gaituzten liburuak daude, eskuarki dendatik mugitzen ez direnak; erakutsi egiten ditugu, aholkatu, horietaz hitz egin... badakigu lehenago edo beranduago saldu egingo direla, atipikoak izanda ere. Iritsi eta onartzen ditugun liburu berriak lau eta sei hilabete arteko epean egon ohi dira dendan.

Etorkizunean erabileraren bat eman ahal izango diegula iruditzen bazaigu, fondoan sartzen dira; bestela, itzuli egiten ditugu.

🎨 **AUZOLAN:** Banatzaileekin akordio batzuk daude sinatuta, liburuak epe baterako uzten dituzte, urte baterako batzuek, beste batzuek gehiago edo gutxiago... Dena den liburu bat ateratzen denean aukera ematen dugu bezeroak ezagutu dezan, bai eskaparatean jarriz edo mahai gaintan, eta denbora batez hor egonen da. Saltzen ez bada, ale bat gordeko da badaezpada eta besteak itzuli egiten dira; aldiz, saltzen baldin bada, ba, gehiago eskatuko ditugu.

Nola aukeratzen duzue fondoa? Zenbatero berritzen duzue?

🎨 **LA GUSANA:** Liburu-dendako fondoan sartuko diren liburuak hautatzeko, gure aukera pertsonalean oinarritzen gara eta baita gure bezerorik zintzoenenean ere, beren ekarpen eta ideiekin lagundu egiten baitigute La Gusana beren neurria eginiko liburu-denda izan dadin. Gure ustez, liburu-denda baten fondoak kalitatea izan behar du eta, irakurketak aholkatzerakoan, gure erreferentzi puntu bihurtu. Liburu bat beste

batez ordeka dezakegunean berritzen dugu fondoa, bai oso ondo funtzionatu duen nobedadea delako, bai edizio zainduagoan argitaratu delako, eta abar.

🎨 **AUZOLAN:** Gehienetan komertzialak pasatzen dira beraien produktuak eskainiz. Interneten bidez ere aukeratzen dugu, baina gehienetan komertzialak etortzen dira eskaintzarekin.

Gero eta liburu gehiago ateratzen dira merkatura, beraz, egunero sartu eta atera egiten direnez, berritzen joaten gara, eta ez dago epe finkorik erakuslehoan egoteko.

Zenbait data konkretutarako berritzen dugu: Eguberrirako, liburu egunerako, liburu azoketarako. Liburu gehiago aurkezten dira eta eskaintza handitu egiten da; beraz, mugimendu handiagoa izaten dugu.

Zuen liburu-dendan Haur eta Gazte Literaturari toki berezia egin diozue. Hori, berez, hasierako planteamendua izan da ala denborak eta eskaerak eragindako ondorioa?

🎨 **LA GUSANA:** Hastapenetik planteatu genuen horrela: La Gusanak Haur eta Gazte Literaturan espezializatutako liburu-denda izan





behar zuen. Duela urte asko gara Haur eta Gazte Literatura irakurle, eta album ilustratuaren zale porrokatuak gara. Liburu-dendetan ohiko bisitari ginen heinean, pena handia ematen zigun horren inguruko ezjakintasunak, eskaintzen zitzaion tokia beti izan ohi zen oso txikia eta gutxitan aurkitzen genuen alor horretan lagun gintzakeenik. Hutsune hori betetzen saiatzea iruditu zitzaigun egokiena.

🌿 **AUZOLAN:** Hasieratik dago toki berezia haur eta gazte literaturari erreserbatua.

Bada bereiztasunik erosleen aldetik hizkuntza batekoaren (euskara) eta bestekoaren (gaztelania) artean? Zein da erosleen profila? Egin al daiteke horrelako profilik?

🌿 **LA GUSANA:** Guk ez dugu ia ezberdintasunik hautematen. Jende gehienak gustuko liburuetara jotzen du, zer hizkuntzatan argitaratuta dagoen begiratu gabe, eta gure hautaketa irizpidea berbera da.

Zaila da gure liburu-dendako eroslearen profila trazatzea, La Gusanak bezero aniztasun oso zabala biltzen baitu. Hori bai, gizonezko baino emakume gehiago etortzen da, oro har ikasketa maila ertaina edo goikoa duena eta erosteko ahalmen apur bat baduena.

🌿 **AUZOLAN:** Haur literaturan erdaraz gehiago saltzen bada ere, euskaraz ere asko saltzen da. Kontuan edukiz erderaz eskaintza gehiago dagoela, ez dago batere gaizki.

Profila ikaslearena izan daiteke, seme-alabak irakurtzeko gogoia duen gurasoena, irakasleena...

Zerk du arrakasta handiagoa, haur literaturak ala gazte literaturak?

🌿 **LA GUSANA:** La Gusanan arrakasta handiagoa du haur literaturak. Gurasoek aukeratzeko dituzte seme-alabentzat nahi dituzten liburuak. Liburuarekin harremanetan txikitatik has daitezke gustatzen zaie. Zentzu horretan, album ilustratuak joko ematen du: koloreak, ilustrazioak, testu errazak... Polita den zerbaiten aurrean seme-alabekin une bat eman ahal izatea erakargarri zaie.

Haatik, ez da gauza bera gertatzen gazte literaturarekin; gazteek aukeratzeko dituzte beren irakurketak. Horregatik, salmenta asko zentratzen da best-seller-etan (*Eragon*, *Memorias de Idhún*, eta abar) eta haur literatura baino gutxiago saltzen da. Beste bide batzuk, beste aukera batzuk erakusten saiatzen gara gu, eta funtzionatu ohi du. Baina, a priori, oso argi dute zeren bila dabilzan.

Gaur egungo eskolen sareak laguntzen al du Haur eta Gazte Literatura kontsumitzen?

🌿 **LA GUSANA:** Uste dugu oro har eskoletan ez dela Haur eta Gazte Literatura ezagutzen. Beraientzat «ezezaguna eta eskuraezina» den eskaintzan sartzeko orduan zailtasuna dutela adierazten dute gurera etortzen diren profesionalak. Irakurketa ohitura edo hamaika balio lantzeko oso baliogarriak diren izenburuak deskubritzen dituztenean edo gazte-klasikoez, eta ez hain klasikoez, hitz egiten diegunean harritu egin ohi dira. Gure ustez, zentroetako bultzada handiagoa eta kalitate hobekoa izan dadin, beharrezkoa da haur eta gazte liburuen sustapen zabalagoa.

🌿 **AUZOLAN:** Bai, txikiak eskolan eskatutakoa eskatzen etortzen ohi dira, hori nabaria da; eta gazteekin modu berean, institutuan eskatutakoa erreklamatzeko dute, eta zenbaitek bere aurkera egiten du.

Baduzue aditu berezirik sail hauetarako? Nola aukeratzeko dituzue liburuak? Egunkarietako, aldizkarietako, aldizkari espezializatueta kritikan jarraitzen al dituzue?

🌿 **LA GUSANA:** Guk geuk aukeratzeko dugu liburu bakoitza. Beti gustatu izan zaizkigun eta saltzen diren neurrian derrigorrez etengabe birjari behar diren horiek ditugu. Bai, jarraitzen ditugu komunikabideetako kritikak, eta argialetxeen nobedadeak jasotzen ditugu, baina liburu-dendan

salmentan jarri aurretik gure analisi pertsonaletik pasatzen dira.

🌿 **AUZOLAN:** Bai, bere lan nagusia liburuak aukeratzeko laguntzean datza. Orain katalogoak ateratzen dituzte eta horrek asko errazten digu lana.

Liburuaren salmentaren aldetik, noiz saltzen dira liburu gehien? Pentsatzekoa da bi kolpe handi izango direla: Durango-Eguberrien inguruko datak eta udaberri-uda hasiera aldera. Hala al da? Gainerako urte garaian, nola joaten da HGLren salmenta?

🌿 **LA GUSANA:** Salmenta handieneko garaiak oporraldiekin egiten dute bat: gabonak eta udaberria. Hala ere, guri dagokigunez, ez dugu ezberdintasun handiegirik nabaritzen hilabete batzuetatik besteetara, eta salmentak urte osoan zehar mantentzen dira.

🌿 **AUZOLAN:** Urtean zehar lasai joaten da salmenta kontua. Haurrek eskoletan eskatzen dizkieten liburuen bila datoz, gehienetan oso liburu konkretuen bila.

Baduzue nolabaiteko akordioerik instituzioekin? Harremanik? Dirulaguntzarik?

🌿 **LA GUSANA:** Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jaso ditugu eta orain hasi gara instituzioekin akordioetara iristeko egitasmoak prestatzen. Poliki-poliki goaz.

🌿 **AUZOLAN:** Ez, ez dugu inolako harremanik instituzioekin. Ezta liburutegiekin ere eta eskola



🌿 Hitz eta Pitz 🌿



zentruekin ere ez. Hortaz aparte esan behar du dirulaguntzarik ez dugula jasotzen.

Nola ikusten duzue HGL-ren etorkizuna? Non atzemango ditugu aldaketa handienak?

🌿 **LA GUSANA:** Gure ustez, HGL-ren etorkizuna irakurleen esku egongo da beti. Horiengana iritsi beharra dago kalitatezko liburuen bidez. Argitaletxeek ez dute asko laguntzen horrenbeste material –zalantzazko kalitatezkoak batzuk, eta hain berdintsuak– argitaratuz. Uste dugu beharrezkoa dela instituzio maila guztietan mentalizazioa, argi izan behar dugu liburuak txikienei hurbiltzen ez badizkiegu, ez dela gero erraza izango irakurzaletasunera erakartzea. Horregatik, La Gusanak irakurketaren sustapen jarduera oro bultzatzen du, lehen irakurleengandik hasi eta zein bideri jarraitu nahi dioten erabakitzen duten adinera arte.

🌿 **AUZOLAN:** Gero eta hobeto. Aldaketari dagokionez, gero eta barietate handiago dagoela esango nuke, gero eta idazle gehiago eta liburu gehiago daudela, baita irakurle gehiago ere.

